

KANALAK

Testu honetan gure produktua saltzeko erabiliko ditugun kanalak adieraziko ditugu, hau da, gure harremanak adieraziko ditugu. Publizitaterako kanalak, bezeroekin komunikatzeko kanalak, banaketa kanalak eta salmentarako erabiliko ditugun kanalak zehazki.

Salmentarako beste enpresa askok egiten duten bezela egingo dugu, internet bidez egingo dugu, gure webgunetik. Ez dugu nahi lokal bat eduki salmentarako ez zaigulako iruditzen gaur egun jendeak dendetan erosten duenik. Internetak du indar gehiena, guretzat baita errazagoa da internet bidez guri iristen zaizkigulako eskaerak eta iristen zaizkigunean makina bidaltzen hasi gaitezkelako. Horrela egitea merkeagoa da ez dugulako alokairurik ordaindu behar eta ez diogulako langileei ordaindu behar lan hori egiteagatik. Baita kontuan eduki behar da makina berri bat dela ez dena oraindik existitzen beraz gure makina erakutsi beharko dugu, horregatik joakjo gara ikastetxeetara eta gure webgunean gure makinaren argazkiak egongo dira.

Banaketarako furgonetak saltzen dituen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara hauetako bat erosteko. Gu izango gara banaketaren arduradunak, hasieran batean furgoneta bakarrarekin egingo dugu banaketa. Horrez gain gure makinaren aurkezpenak egiterako momentuan furgoneta oso garrantzitsua izango da. Auto bat baita erosiko dugu mantenimendua egiten duten pertsonentzat, auto handi bat izan behar da, behar diren tresanak eramateko lekua edukitzeko, baina langileek beraien autoa balute eta hori erabiltzeko prest badaude, auto bat erosi ordez lan orduetan egindako kilometroak ordainduko zaizkie.

Publizitate kanaletaz gu arduratuko gara, lehenengo eskolaz-eskola joango gara gure produktuaren funtzionamendua azaltzeko. Horrez gain sare sozialetan publizitatuko dugu gure produktua, Instagramen enpresaren kontua irekiko dugu bertan behar den informazioa txertatzeko eta gurekin kontaktuan jartzeko hainbat modu ere aurkeztu ditugu, berdina egingo dugu Twitter eta Tik Tok plataformetan, azken hontan makinaren funtzionamendua azaltzen duen eta beste motako hainbat bideo motz igoko ditugu.

Bestalde, edozein enpresa gurekin kontaktuan jarri daiteke, beraz gure produktua saltzeko aukera gehiago izango dugu. Udaletxean gure produktua aurkeztea ere gustatuko litzaiguke, hau aurrera eramateko hitzaldiak emateko prest gaude, gure enpresaren nondik-norakoak azaltzeko eta honek eduki ditzazkeen abantailak aurkezteko. Hasiera batean Euskal Herrian bakarrik aurkeztuko dugu gure produktua, Espainia guztian saltzeak zailtasun handiak sortu dezakelako, ez daukagu eta gure produktua herrialde guztitik banatzeko haibeste garraiorik.

Azkenik gure produktua saltzean bezerori inketa bat bidaliko diegu. Honek asko lagunduko digu hasieran, arazoak izan badituzte produktuarekin edo tratuarekin gertatutakoa kontatu eta hobetu dezakegu.

